


Lehenengo aldia

Jarraian Joseba Sarrionandiaren **"Akordatzen"** testu autobiografikotik ateratako pasarte batzuk irakurriko dituzu. Irakurritakoan komentatu ikaskideekin:

- Zein dira egilearekin konpartitzen dituzun oroitzapenak?
- Egilearen oroitzapenetatik zein egiten zaizkizu arrotzak?
- Eta zu zertaz akordatzen zara? Gogoratzen al duzu gaur egun guztiz arrotza edo anakronikoa irudituko litzaigukeen gauzarik edo egoerarik?



Elgorriz gaixotu ginenean, arreba eta biok leihoak itxi eta logela gorritzatuan sartu gintuztela akordatzen naiz.

Garaizarrera bideko, Etxeberri barreneko putzuko igelen kantuaz akordatzen naiz.

Urrun eta antzina, itsumutila izan nintzela akordatzen naiz. Itsuneskak eta itsumutilak ginela auzoko neskamutilak. Patxi, Osteko itsua, aittitteren anaia, aulkian eserita egoten zena, solo ertzeraino eramaten genuen, artoa zenbat hazi zen jakin nahi izaten zuelako.

Iluntze aurreko oskorria Bilboko Labe Handiengatik zela pentsatzen genuela akordatzen naiz.

Etxean ez zegoen telebistarik. Domeka arratsaldeetan Etxeberrira joaten ginela akordatzen naiz telebisioa ikusteko.

Ezkutaketan jolasten ginela akordatzen naiz. Bat, bi, hiru, lau... Orduan ez genekien gero bizitza osoa horrexetan, ezkutatzen, eman beharko genuela.



Indarra egiten zuten idi gorriez eta belar lehorra sabaira zeraman gurdiaz akordatzen naiz. Gainezka kargatua gurdia, balantzaka, eta gainean umeak olgetan, soketatik eutsirik.

Garaizarkoa naizela akordatzen naiz. Baina nor ez da ba Garaizarkoa?

Goiko aldapa Barranku deitzen zela akordatzen naiz. Igorretako baserri bat Toledo deitzen zela, eta Goiuriko azkena Luku.

Horman landare berde polit bat hasi zela akordatzen naiz. Eta sustrai txiki haiek denborarekin etxea botako zutela esan zuela baten batek.

Bizikleta hiru gurpilekoa zela akordatzen naiz.

Ermita zaharrea San Mames zegoela akordatzen naiz.

Estilografikaz idazten genuela akordatzen naiz. Trebetasuna behar zen tinteroak zabaldu eta estilografika ezer zikindu gabe kargatzeko.

Idazteari, kaligrafia esaten zitzaiola akordatzen naiz.

Macbeth obrako jesuitaz akordatzen naiz. William Shakespeareren *Macbeth* XI. mendearen hasieran kokatzen bada, zer egiten zuen orduan han jesuitak, bigarren aktoko hirugarren eszenako atezainak aipatzen duen jesuitak?

Ez dakit zoriontsua izan nintzen orduan, baina ume desterratuaren moduan akordatzen naiz ume denboraz.

Neskak gona laburrekin, abadeek ez zietela mezara sartzen uzten kontatzen zela akordatzen naiz.

Klasean, kilker hotsa pupitreetan. Tapa erdi altxatu nuen eta kilkerra hantxe zegoela akordatzen naiz, erdi ilunetan, bazter bazterean.



Igorretako plazan ahari topekak izaten zirela akordatzen naiz, eta jendea inguruan biltzen zen ikusteko. Aharitoak ederrak ziren eta bata bestearen kontrako kolpeak itzelak.

Bonanza, El Virginiano, Daniel Boone gogoratzen ditut. Eta *Embrujada*, eta *Locomotoro*.

Orain letrarik ez duen himnoak orduan letra zuela akordatzen naiz: *¡Viva España! Alzad los brazos hijos del pueblo español que vuelve a resurgir...*

Bete ezinik geratzen ziren kromo albumak gogoratzen ditut. Kolekzioa egiten genuen, eta kromoak trukatzeko genituen, baina kromo batzuk zailagoak ziren, ez ziren ia inoiz heltzen.

Idazten, orria amaitzean itxaron egin behar zela akordatzen naiz, harik eta tinta lehortu arte. Begiak ixten ditudanean, paper sekanteak ikusten ditut.

Estraza paperaz akordatzen naiz, dendetako mostradorean egoten zela, gauzak biltzeko. Eta kontuak ere estraza paperean bertan egiten ziren, eskuz.

Ama josteko makinarekin aritzen zen lanean. Makinari pedalez eragiten zion eta egiten zuen soinuaz akordatzen naiz. *Singer* deitzen zela uste dut.

Denda batzuk ultramarinoak deitzen zirela akordatzen naiz. Eta beste batzuk drogeriak.

Iribar, Sáez, Echevarría, Aranguren, Igartua, Larrauri, Argoitia, Uriarte, Arieta, Clemente, Rojo.

Harrien bildumak ere egiten genituela akordatzen naiz, zurezko kaxa zabaletan. Eta harri bakoitzak bere izena zuen, esate baterako, *calcopirita*.

Martin Luther King hil zutela akordatzen naiz. Ametsetan egin dut, ametsetan ari naiz, amets bat daukat esaten zuena...

Metroaren lehoiaz akordatzen naiz, lehen imajinetan orroka agertzen zen. Gero ez zen pelikulan gehiago azaltzen.

Eta indioek infinitiboan hitz egiten zuten. Eta karabanei erasotzeko haien taktika anormalen gauza iruditzen zitzaidala akordatzen naiz, karroen defentsaren inguruan jirabiraka, karabanakoei tiro praktika egiteko aukera emanez harik eta bizirik sei edo zazpi besterik geratzen ez zirenean alde egiten zuten arte.

Atzamarrak eta zapata puntak klarion hautsez betetzen zitzaizkigula akordatzen naiz.

Durangoko estazioan, tren zaharren artean ibiltzen ginen eta, ez naiz akordatzen zertan, tren batzuek azpialdean nazien esbastika zuten.

Zer egin zuen galdetu ziotenean, ahoko zotza alde batetik bestera pasatu besterik ez zuela egin akordatzen naiz.

Jaungoikoak mundua sei egunetan egin zuela akordatzen naiz. Horixe esaten zigutela behintzat. Eta ondo nabarmenak ziren gero gauzak presaka eta ganorarik gabe egitearen ondorioak.

Euri iluntze grisetan zinera sartzan ginela akordatzen naiz. *Technicolor* deitzen zen beste munduen kolorea.

Zigarroak erretzeko, *celtas* filtrogabeak, komunen partean ezkututzen ginela akordatzen naiz. Edo Bereziganeraino joaten ginela, Harriputzuetatik gora, Berezigane barrenean sugedorriak ugari omen zeuden arren, eta handik gainetik libre eta eder ikusten zela ibar guztia.

Akordatzen naiz, gerra zibilar buruz inork ez zuela ezer kontatzen. Ez genuen gerrari buruz ezer jakin luzaroan. Baina, apur bat jakin genuenetik, hasi ginen konturatzen eraikin oraindik hondatuak zeudela herrian, hasi ginen mendian trintxerak ikusten eta kaleko hormetan ere tiro zuloak zeudela ohartzen, gerraren oroigarri nabarmenak paisaia humanoaren isiltasunean.

Espainiak Ifni entregatu zuela akordatzen naiz. Osabak hainbeste urte eman ondoren han soldadutzan, Afrikan, Ifni Espainiarentzat zaintzen.



Fabriken gainean, teillatuaren ordean, ur depositua izaten zela akordatzen naiz, arraingoan txikiak.

Berba bakoitzak barruan bere historia eta bere drama daramala akordatzen naiz.

Latina munduko hizkuntzarik logikoena dela esaten zigutela akordatzen naiz. Eta zeharo konplikatu eta aldrebesa iruditzen zitzaidala.



Akordatzen naiz behin amama Irenek esan zidala, 1937ko martxoaren azkeneko egunean Durangon ezin zela oinez ibili odola zapaldu gabe.

Ume denborako jokoetan, onek irabazten zuten beti? Jadanik ez naiz ondo akordatzen.

Periodiko papera ere erabiltzen zela akordatzen naiz, gauzak biltzeko. Eskolarako bokadiloa, esate baterako.

Chobil txokolateaz akordatzen naiz.

Klasean kanikekin jolasean harrapatuz gero, maisuak kanikak kentzen zizkigula akordatzen naiz. Zertarako nahi zituen ba hainbeste kanika?

Tristurak, lanbroak bezala, gauzen kolorea margultzen zuela akordatzen naiz.

Orain Euskadi irratiko pasarte bat entzungo duzu, "Lehen bidaia gurasorik gabe". Solasaldi horretan Onintza Enbeitak eta Arantza Urretabizkaiak gurasorik gabe egin zuten lehenengo bidaia dute hizpide. Entzun ezazu eta komentatu ikaskideekin ondorengo galderak:

- Nora, norekin eta nolakoa izan zen Onintza Enbeitak gurasorik gabe egin zuten lehenengo bidaia? Zer oroitzapen dauzka bidaia horretatik?
- Nora, norekin eta nolakoa izan zen Arantza Urretabizkaiak bereziki gogoratzen duen bidaia? Zer oroitzapen dauzka bidaia horretatik?
- Eta zuk, gogoratzen al duzu gurasorik gabe egin zenuen lehenengo bidaia? Nolakoa izan zen?



Onintza Enbeitak eta Arantza Urretabizkaiak gurasorik gabe egindako lehenengo bidaiak kontatu dute. Zuk, berriz gogoan daukazu lehenengo aldia...?

Aukeratu jarraian proposatuko dizkizugun gaietako bat eta, irratsaioko tertuliakideek egin duten bezala, kontatu nolakoa izan zen zure lehenengo aldia.

- 1- Lehenengo autoa
- 2- Lehenengo mozkorraldia
- 3- Lehenengo kontzertua
- 4- Lehenengo desengainua
- 5- Lehenengo kanpaldia
- 6- Lehenengo eguna lanean
- 7- Lehenengo aldia Gasteizko jaietan gurasorik gabe.
- 8- Lehenengo bizikleta
- 9- Lehenengo manifestazioa
- 10- Lehenengo hezur apurtua
- 11- Lehenengo maskota

